



## BIZIKLETAK TRENETAN (2022ko ekainean eguneratua)

### RENFE

**Aldirietako trenak:** bidaiari bakoitzak bere bizikleta eraman dezake doan, baldin eta bizikletek ez badute leku asko hartzen edo bizikleta kopurua ez bada handia. Horrelakorik gertatuz gero, bidaiariak beste tren bat har dezake edo txartelaren dirua itzuli diezaioten eska dezake.

Bizikletak horretarako egokitutako espazioetan jarri behar dira, eta, halakorik ez badago, trenen sarrerako plataformetan, betiere korridoreak eta aulki ez-tolesgarrien eremuak hartu gabe.

Bidaiariari dagokio bizikleta kargatzeaz eta deskargatzeaz arduratzea, bai eta gainerako bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna bermatzeaz ere, eta trenari eta hirugarrenei eragindako kalteen erantzule izango da.

Bizikleta tolesgarriak kosturik gabe garraia daitezke, ekipajea balira bezala eta zorro baten barruan, baldin eta hiru bizikleten artean 180 cm baino gehiagoko tartea hartzen ez badute,

**Distantzia ertaineko trenetan,** 100 km baino gutxiagoko ibilbideetan, bidaiari bakoitzeko bizikleta bat doan garraiatzea ere onartzen da, horretarako dagoen eremu espezifikoa jarrita. Baina, horretarako, nahitaezkoa da aldezturik dagoen erreserba egitea txartela erosteko prozesuan (Estra Bizikleta).

Halaber, 100 km-tik gorako ibilbideetan, bizikleta garraiatzeko prezioa 3 eurokoa da, eta aldezturik dagoen erreserba egin behar da txartela erosteko prozesuan (Estra Bizikleta).

Abonu bat erabiliz gero, ezin da bizikletari dagokion estra erosi bidaia formalizatzean; beraz, beharrezkoa da geltokiko txartel-leihatilatik pasatzea.

Ibilbide ertaineko tren gehienetan, bizikleta non eraman behar den seinaleztatuta egoten da. Komeni da, beraz, seinale horietan erreparatzea trena hartu aurretik.

Bidaiariari dagokio bizikleta kargatzeaz eta deskargatzeaz arduratzea, bai eta gainerako bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna bermatzeaz ere, eta trenari eta hirugarrenei eragindako kalteen erantzule izango da.

Horregatik, bada, komeni da olagarro elastikoren bat eramatea, bizikleta lekuren batean lotu ahal izateko, ez dadin ez erori ez mugitu. Era berean, erne egon



behar da irteerako atea irekitzeko unean, bizikletak sarrerako plataformetan eramaten direnean.

Gainera, oso garrantzitsua da bizikletako zakutoak erretiratzea trenera igo aurretik edo behin igo eta berehala, dagoen lekua hobeto aprobetxatzeko.

Hiru bizikleta baino gehiagorekin taldean bidaiatu ahal izateko, Renferen baimena eskuratu behar da aurretik. Izan ere, talde baimenduen kasuan bakarrik gainditu daiteke bagoi edo tren bakoitzeko jarrita dagoen bizikleta kopuruaren muga.

Bizikleta tolesgarriak edo desmuntatuak kosturik gabe garraia daitezke, ekipajea balitz bezala eta zorro baten barruan, baldin eta hiru bizikleten artean 250 cm baino gehiagoko tartea hartzen ez badute.

**Abiadura Handiko eta Distantzia Luzeko edo Avant** trenetan ere bidaiari bakoitzeko bizikleta bat doan garraiatzea onartzen da, betiere:

- Tolestuta edo desmuntatuta badago, zorro baten barruan.
- Pedalak desmuntatuta badaude eta eskulekua biratuta 90 gradu.
- Hiru bizikleten artean 250 cm baino gehiagoko tartea hartzen ez bada
- Eta aldeztu aurretik erreserba bat egiten bada txartela erosteko prozesuan (Estra Bizikleta).

Bidaia konpartimentu ohedunean egiten bada, familia sistemaren bidez hartutako konpartimentuetan bakarrik onartuko dira bizikletak (hau da, konpartimentua okupatzen duten bidaiari guztiek talde bat osatuko dute), eta gehienez ere bi bizikleta eramango dira konpartimentu bakoitzeko.

Bidaia ohatzean egiten bada, eta konpartimentuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute, bizikletak beheko ohatzean azpiko espazioan kokatu beharko dira, eta gehienez ere bi bizikleta onartuko dira konpartimentu bakoitzeko.

Bidaiariari dagokio bizikleta kargatzeaz eta deskargatzeaz arduratzea, bai eta gainerako bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna bermatzeaz ere, eta trenari eta hirugarrenei eragindako kalteen erantzule izango da.

### **Bizikletak trenera!**

- Planifikatu aldeztu aurretik zure bidaia, eta egin erreserba, hartu behar duzun trenak hala eskatzen duenean.



- Trenean, zenbat eta azkarrago igo eta jaitsi, orduan eta traba gutxiago egingo diezu gainerako bidaiariei. Igo edo jaitsi zeure burua nabarmenduz, trenaren abia ez dadin zure bizikleta oraindik bagoitik jaisten ari zarela; geltokiko buroak lagun diezazuke.
- Renfe ez du bere gain hartzen garraiatzen dituzun objektuen erantzukizuna eta, beraz, komenigarria da bizikleta arretaz zaintzea edo, bestela, giltzarripoz behar bezala lotzea, ezusteko desatseginak saihesteko.
- Taldean baldin bazoazte (hiru bizikleta baino gehiago) gogoan izan Renferi baimena eskatu behar diozuela alde aurretik. Gainera, gomendatzen dizuegu geltokira ordu erdi bat lehenago iristea txartelak lasai erosteko eta bizikletak ere trenen lasaitasunez sartzeko.
- Geltokiko langileekin justifikatu gabeko arazoren bat sortuz gero, jakin ezazu erreklamazio-orri bat dagoela eta jarritako kexari erantzun behar diotela. Erantzunik jaso ezean, Renfe Kontsumoko Arbitraje Batzordeko kidea da eta bertan doan erreklamatu ahal izango dituzu jasandako kalteak, eta itzulketak edo ordainak eskatu. Dena den, horretarako frogaren gisa balio dezaketen agiri guztiak gorde beharko dituzu –fakturak konponketa egiteagatik, erosketa-tiketa, bizikletaren egoeraren argazkiak, eta abar–. Halaber, EA-Eko kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa, babesa eta defentsa eskaintzeko zerbitzuak ere oso lagungarri izan daitezke.

Bizikletarekin bidaiatu Renfen:

<https://www.renfe.com/es/eu/viajar/informacion-util/equipajes/bicicletas-y-patines>

<https://www.renfe.com/es/eu/renfe-taldea/garraio-jasangarria/bizikleta-gehiago-trena>

Renferi zalantzak edo iradokizunak jakinarazteko:

<https://www.renfe.com/es/es/ayuda/contactar-renfe>

Renferi zalantzak edo iradokizunak jakinarazteko:

<https://www.renfe.com/es/eu/ayuda/contactar-renfe>

Renfe Aldiriak zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:

<https://www.renfe.com/es/eu/ayuda/contactar-renfe-cercanias>

Telefono bidezko informazioa lortzeko eta txartelak erreserbatzeko: 912 320 320

Gorabeherak eta erreklamazioak: 900 878 333



## EUSKOTREN

1. Euskotreneko trenetan, oro har, bidaiari bakoitzeko bizikleta bat doan garraiatzea onartzen da, betiere gainerako pertsoneri eragozpenik eragiten ez bazaie, honako egun eta ordutegi hauetan:

- Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: lanaldi osoan.
- Astelehenetik ostiralera: 10:00etatik 12:30era eta 19:00etatik zerbitzua amaitu arte.

Dena den, zenbait egoeratan bizikleta sartzen ez uzteko eskubidea gordezten du beretzat; esate baterako, bidaiariek instalazioetan barrena ibiltzeko zailtasunak badituzte jendearen pilaketarengatik, matxurengatik edo beste gorabehera batzuegatik.

2. Bizikletak jarri behar dira bizikletak eramateko lekuetan soilik.
3. Baimenduta dago bizikletak garraiatzea eskailera mekanikoetan, korridore gurgildunetan eta igogailuetan, betiere instalazio horien okupazio-mailak horretarako aukera ematen badu, eta beste pertsona batzuei eragozpenik eragin gabe.
4. Jabeak hartu behar du bere bizikletaren ardura, berak bermatu behar baititu gainerako bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna. Horregatik, bada, bera izango da bai trenak bai hirugarrengok paira ditzaketen kalteen erantzulea.
5. Bizikleta tolestuak, ez badute neurtzen 100 x 60 x 25 cm baino gehiago, eta umeen bizikletak eskuko fardeltzat hartuko dira eta ez dira zorro batean sartu behar.

### **Euskotren**

Easo plaza, z/g  
20006 Donostia

[www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)  
[oadon1@euskotren.eus](mailto:oadon1@euskotren.eus)  
944 333 333